

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**2/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 10ekoa, zeinaren bidez Murgiako 2 zenbakiko egikaritze unitatearen hitzarmen batzarra, Zuiako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioetako, Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzen den**

Zuiako Udalak, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2018ko azaroaren 30ean sartu zen idazkiaren bidez, sail honi bidali zion 2018ko azaroaren 28ko 378/2018 Alkatetza Dekretua, zeinaren bidez Murgiako 2 zenbakiko egikaritze unitatearen hitzarmen batzarra eratu baitzen, eta eskatu zuen batzar hori Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskriba zedila.

Espedientearen formaren eta prozeduraren zuzentasunari buruzko txosten arrazoitua egin zuen Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintza Zerbitzuak, eta batzarra erregistroan inskribatzeko proposamena egin zuen.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

**XEDATZEN DUT**

Onestea Murgiako 2 zenbakiko egikaritze unitatearen hitzarmen batzarra, Zuiako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioetako, eratzeari buruzko espedientearen edukia eta izapidetzea, eta batzar hori Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzeko agindua ematea.

Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 10a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**